

Hego Sudan estatu berriaren izena arautu du Euskaltzaindiak

2011ko uztailaren 9an jaio zen *Hego Sudan* estatu berria (eta, dagoeneko, Nazio Batuetako 77 estatuk ezagutu dute), eta Euskaltzaindiak estatu horren izena arautu du gaur.

Badira zenbait urte munduko estatuen euskarazko izenak arautu zirela: 1995eko uztailaren 28an onartu zuen Euskaltzaindiak munduko estatuen zerrenda: 38. araua izan zen. Geroago, 1999an, 53. araua onartu zuen: munduko estatuetako hizkuntza ofizialak. Hizkuntza ofizialen zerrenda estatuen zerrendari erantsita osatu zen 38. araua (*Munduko estatu-izenak, herritarren izenak, hizkuntza ofizialak eta hiriburuak*). Handik urte batzuetara, 2007ko martxoaren 30ean, 38. araua eguneratua, zuzendua eta osatua berronartu zuen Euskaltzaindiak. Eta geroago, 2008ko apirilaren 4an, Kosovo estatu berriarekikoak onartu, eta 38. arauan txertatu ziren. Orain, estatu berria sortu bezain laster, Euskaltzaindiak arautu nahi izan du estatu berriaren izena, eta, harekin batera, baita hiriburuarena ere. Hona hemen araua:

Herrialdearen izena: **Hego Sudan**

Estatuaren izen ofiziala: **Hego Sudango Errepublika**

Herritarren jende-izena: **hegosudandar**

Hizkuntza ofiziala: **ingeleza**

Hiriburua: **Juba**

Hiriburuko herritarren jende-izena: **jubatar**

Euskaraz	Gaztelaniaz	Frantsesez	Ingelesez
Hego Sudan	Sudán del Sur	Sud-Soudan	South Sudan
Juba	Yuba	Djouba	Juba